

Ibarbi Sagarraren Ibilbidea



SL-Gi 48

↑ 3,5 km ⌚ 1 h 15'



Dolareak eta sagar etxeak / El lagar y la casa de la manzana

Sagardo dolareak / El lagar



Dolarea aurretik jotako sagarra estutzeko edo zanpatzeko erabiltzen den makina da. Makina horiek baserrietan bertan edo baserritik kanpo eraikin berezi batean egon ohi dira, dolare edo dolaretxeetan.

El lagar es la máquina para prensar y machacar la manzana. Estas máquinas se encuentran dentro del caserío o bien en edificios fuera de los caseríos. En los primeros caseríos de Errezil había grandes lagares de madera para producir sidra.

Hoy en día no tenemos ningún lagar de este tipo en pie, excepto el renovado Igartubeiti de Ezkio.

"Habedun dolareak, XVI. eta XVII. mendearen lehen erdiko baserrietan, dolarea baserriaren bolumen ia osoa hartzen zuen makina erraldoia zen.

Errezilgo lehen baserrietan sagardoa egiteko zurezko dolare handiak zeuden, habedun dolareak. XVI. eta XVII. mendearen lehen erdiko baserrietan dolarea baserriaren bolumen ia osoa hartzen zuen makina erraldoia zen.

Kontrapisudun palanka-beso handi baten jokuan oinarritzen zen prentsaketa, eta jotako sagar-orearengan etengabeko presioa eragiten zuen makinak.



*Siglos
XVI-XVII
Mendeak*

Gaur osorik iraun duen halako dolare bat bera ere ez dugu, Ezkion zaharberritu den Igartubeitin izan ezik.

Hala ere, mekanismoaren egitura osatzen duten zutabe pareak zutik diraute hamaika baserri zahar zutik eusten. Errezilen esaterako, Arzallus Honuzkoan (Kortane), Ernataritzen, Iraolazarren, Ibarbiabitarten...

XVII. mendearen amaieran aurrekoak ordezkatuko dituen dolare modelua zabaltzen hasi zen: torlojudun dolareak. Zurezkoak izaten jarraitzen dute baina harizatutako torloju batzuk dira presio zuzena egiten dutenak. Makina berri honek dimentsio txikiagoak zituen, eta egiturak oraindik eraikitako bolumenaren erdia hartu arren, ez zuen euskarri funtziorik. Ondorioz, eraikuntza aldatu gabe hondatutako piezak ordezkatu zitezkeen. Errezilen Iraolaberrin ditugu garai hartako dolarearen arrastoak.

*Siglo
XVIII
Mendea*



Gaur egun Errezilen ditugun dolare gehienak mota honetakoak dira, baserri-dolareak, familian kontsumitzeko egiten dutenak sagardoa, edo gehienez auzoko edo inguruko baserritarrentzat besterik ez.

Errezilen ez dira, eskuzkoak ordezkaturiko dituzten instalakuntza motordun konplexuak sortuko, ezta egungo sagardotegi modernoek dituzten errendimendu handiko prentsa pneumatikoak Errezilera iritsiko ere.



*Siglo
XIX
Mendea*

XIX. mendearen hondarrean burdinazko ardazdun dolarea iritsi zen; dolareak nabarmenki aldatu zituenak. Egurrezko torlojua aska erdian sostengaturik dagoen ardatz metalikoak ordezkaturiko du. Pixkanaka aldaera berriak sartuko dira: porlanezko aska edo lakua, desmuntatzen diren dolare txikiagoak...

A finales del siglo XIX llegó el lagar de eje de hierro, lo que supuso un gran cambio. La mayoría de lagares que tenemos hoy en día en Errezil son de este tipo y se utilizan para producir sidra en pequeñas cantidades.

*Gaur egun
Presente*




Sagar etxea / La casa de la manzana

Dolaretxea sagardoa egiteko eraikina den moduan, sagarretxea sagarra baldintza egokietan mantentzeko erabili den eraikina da. Sagastian bertan egon ohi dira, erreka bazterretan sarri, ahal dela leku laiotz eta freskoan. Bi uretako teilatua eta bi solairu izan ohi dituzte. Goikoan zabaltzen dira sagarrak udaberrira arte irauteko. Adibide bikaina da hemen aurrean duzuen Aranguren baserriko sagarretxea.

La casa de la manzana es el edificio donde se guardan las manzanas en unas condiciones idóneas para su mantenimiento. Suelen situarse dentro de los manzanales, en lugares umbríos y frescos. Esta casa de la manzana del caserío Aranguren es un gran ejemplo.





Bertsoa

*Sagar ondoez inguraturik
beharko da azpimarra
Errezil non-nahi ezagutzera
eman dun fruitu izarra
sukaldariek estimatuna
sagardorako earra
jateko berriz gordinik ona
eta erreta bakarra
gure altxorrik preziatuna
degu Ibarbi sagarra.*

Bertsoaren egilea: Loidi Saletxe